


2014

JARDUERA- MEMORIA



AURKIBIDEA

	Or.
► Aurkezpena.....	3
► Zer da Behatokia.....	5
► Kideak.....	7
► Araudia.....	13
► 2013-2017ko Lan Planaren 2014ko garapenaren laburpena.....	14
► BGIBk 2014an egindako jarduerak.....	19
• Osoko bilkurak.....	19
i. Otsailaren 28ko bilera	
ii. Azaroaren 14ko bilera	
• Adierazleen Lan Taldearen (ALT)	21
i. Maiatzaren 16ko bilera	
ii. Uztailaren 10eko bilera	
iii. Azaroaren 7ko bilera	
• Kanpo-harremanak	26
• Webgunea.....	27
• Udal Harremanetarako Sarea	32
• Informazioa kudeatzeko sistema integrala.....	34
• Baliabideen mapa.....	36
• Baliabideen atlasa	38
• Bizkaiko Lurralde Historikoko zifrak.....	40
• Indarkeria pairatzen duten emakumeentzako Bizkaiko laguntza-baliabideen eta berariazko programen katalogoa	43
• Udalerrietako Informazio Orria	47
• On line dokumentu-kudeatzailea	49
• Boletín OVGB/BGIB Informazio Buletina	51
• Genero- Indarkeriaren aurkako jardunen, ekimen eta esperietzien III. eskuliburua	54



Aurkezpena

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak 2014an egindako lanaren berri emateko helburua du txosten honek; izan ere, proiektuaren sorkuntzaren hamargarren urteurrena bete zen 2014an. Behatokiak, bere eginkizunak baliatuz, bi helburu ditu: batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriak duen errealitatearen eta horren bilakaeraren ezagupenean sakontzea; eta bestetik, arazo horri erantzuteko zerbitzu eta prestazioen sareari buruzko hobekuntza-gomendioak eta -proposamenak egitea.

Ekitaldi honetan ere, Behatokiaren lehentasunezko eginkizuna honako honetan sakontzea izan da: baliabideen bitartez arreta emandako kasuen bolumenaren eta ezaugarrien inguruan eta kasu horien berezitasunen gainean datu fidagarriak lortzea ahalbidetzen duten prozesuen eta tresnen perfektionamenduan, hain zuzen. Jakintza hori, hein handi batean, Behatoki honek emandako gomendioen oinarria da.

Eginkizun hori datuak biltzeko prozesuetan zehazten da (urtean behingoak edota sei hilean behingoak dira datu-bilketa horiek), eta prozesu horiek amaitzean emandako eta hedatutako txostenek, horrela, Bizkaian emakumeek pairaturiko indarkeriazko egoerak irudikatzen dituzte, zifren bidez eta zifra horien analisia dela medio; hori ez ezik, Behatokiak bere webgunean eskaintzen dituen zabalkunde-tresnak ere elikatzen dituzte.

Laugarren urtez jarraian, sei hilean behingo datu-bilketako prozesua amaituta dagoela, Behatokiak “Udalaren Informazio-orria” landu du, eta azaroaren 25a baino lehen (Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna izanik), berezko arreta-baliabideak dituzten toki-erakundeetara igorri du. Nabarmengarria da tresna hori hobetzeko gauzaturiko prozesua; izan ere, edizio honetan, 2013an tokiko hainbat udal-erakunderen lankidetzarekin gauzaturiko balorazio-prozesuaren ondoriozko nobedadeak ekarri ditu.

Aipatzekoa da, era berean, ekitaldi honetan Eusko Jaurlaritzaren barnean osasunaren eta hezkuntzaren esparruan eskudunak diren sailetako ordezkariak txertatu direla Adierazleen Lan Taldean (ALT), eta horrenbestez, alor horiek Behatokian duela gutxitik duten presentzia indartu dela.

Bestalde, “Gomendioak eta Hobetzeko Proposamenak. II. Txostena (2013)” erreferentzia gisa hartuz, 2014an Behatokiak “Prebentzio- eta arreta-arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua”ren hirugarren edizioa landu zuen; lau urtean behingo txosten horrek, aurtengo edizioan, 30 jardunbide eta esperientzia baino gehiago jasotzen ditu prebentzioari, errealitatea ezagutzeari eta arreta emateari buruz, Gomendio Txostenean hobekuntza-alor gisa identifikatu ziren alderdiekin batera.

Era berean, erreferentziazko denboraldi berean, batetik, Behatokiaren webgunea areagotu dugu eta ingelesezko atal bat txertatu dugu, eta bestetik, genero-indarkeriaren esparruan kalitate handikoak eta gaur egungoak diren hainbat edukiren hedapenari jarraipena eman diogu, Boletín OVGB/BGIB Buletinaren lau ale berrirekin.

2014ko ibilbideak zera irudikatzen du, sortu zenez geroztik igarotako hamar urteetan, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak etengabe hobetzen dituela bere lan-prozesuak eta haien ondoriozko produktuak, eta horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan topaketarako, hausnarketarako eta ekintzarako gune gisa ere finkatzen dela. Baina jomuga hori lortzeko, ezinbestekoa da udal-harremanetarako sarearen eta Behatokia osatzen duten erakunde guztien laguntza ordainezina, eta horregatik, dokumentu honen bitartez, zoriontzeaz gain, eskerrak ematen dizkiegu egindako lanarengatik eta emandako laguntzarengatik.

*Pilar Ardanza Uribarren
Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko presidentea
Gizarte Ekintzako Foru Diputatua*

Zer da Behatokia?

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia kide anitzeko organoa da, zalantzak argitzekoa, martxoaren 18ko [53/2003 Foru Dekretuak](#) eratua, eta osaerari dagokionez, honako hauek aldatua: lehenik, azaroaren 9ko [188/2004 Foru Dekretuak](#), bigarrenik, otsailaren 2ko [5/2010 Foru Dekretuak](#), eta azkenik, maiatzaren 21eko [75/2013 Foru Dekretuak](#).

Behatokiak xedetzat du Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumearen aurkako indarkeria-egoeren eta arlo horretan abiarazi diren erakunde-politiken eraginaren –politika horien garapenari, ezarketari eta eragindako biztanleriarengan duen eraginari dagokionez– behaketa, analisisa eta jarraipena egiten laguntzen duen informazio-sistema eratzea. Hori guztia, ezarritako baliabideak behar errealetara egokitzeko.

Behatokiak honako bi helburu nagusi hauek ditu:

1. Emakumeen kontrako indarkeriak Bizkaian zer egoera eragiten dituen eta zer bilakaera duen jakitea, gertatutako aldaketak aztertu ahal izateko.

2. Gomendioak eta proposamenak egitea, Bizkaian genero-indarkeriaren alorrean gauzatzen diren zerbitzuen eta laguntzen eskaintza hobetze aldera.

Helburu horiekin bat etorritz, Behatokiaren eskumenekoa da honako eginkizun hauek gauzatzea:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatzen diren genero-indarkeriako egoerei buruzko datu esanguratsuak barnean hartuko dituen aplikazio informatiko bat diseinatzea, abiaraztea eta mantentzea.

2. Genero-indarkeriako egoeretan laguntza emateko esparruetan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta haren analisisa egiteko organo iraunkorra izatea.

3. Zerbitzuek emakumearen aurkako indarkeriaren arloan erabiltzen dituzten informazio-sistemak eta adierazleak hobetzera zuzendutako gomendio eta proposamenak egitea.

4. Antzeko beste erakunde batzuekin harremanak izatea eta lankidetzan jardutea. Beste administrazio batzuetan abiarazitako eta planteatutako esperientziak eta erreformak ezagutzea.

5. Genero-indarkeriaren hedadurari eta bilakaerari buruzko diagnosi-txosten teknikoak eta azterketak egin daitezen proposatzea.

6. Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako neurri integralen egokitasuna aztertzea, beren ondorio eta eraginak ikertuz eta jardunbide egokien adibideak aztertuz.
7. Bizkaiko genero-indarkeriaren eremuan eragina duten baliabideen eskaintzak hobetzea bultzatzera zuzendutako gomendio eta proposamenak egitea, eta haiek dagozkien erakundeetara iritsaraztea.
8. Genero-indarkeriaren eremuan ikertzen duten taldeen azterketa- eta analisi-lanak errazteko truke- eta komunikazio-foro bat eratzea.
9. Behatokiak urtean zehar garatzen dituen jardueren buruzko urteko txostena igortzea, eta horri buruz jakinaraztea Bizkaiko Batzar Nagusietan.
10. Bere antolaketa- eta funtzionamendu-araudia egitea.

Kideak

Erakunde publikoetako (hots, Bizkaiko Lurralde Historikoaren barneko botere autonomikoetako, foru-botereetako eta toki-botereetako) erakunde-ordezkariek eta emakumeen elkarte-mugimenduko ordezkariak biltzen dituen gunea da Behatokia: estrategien aplikazioan eta baliabideen helmugan diharduten entitateak, genero-indarkeriaren aurkako ekimenak koordinatzeko.

2014. urtean amaitua, BGIBren Plenoa honela osatuta dago:

► PRESIDENTEA

Gizarte Ekintzako Foru Diputatua
Maria Pilar Ardanza Uribarren andrea

► PRESIDENTEORDEA

Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia (BFAko Gizarte Ekintza Saila)
Mercedes Muñiz Estancona andrea, Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia
Ordezkoa: Sergio Murillo Corzo jauna, Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko zuzendari nagusia.

► IDAZKARIA

Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia (BFAko Gizarte Ekintza Saila)
Berta Díaz Arbesú andrea, Emakumearen Ataleko burua
Ordezkoa: Amaia Antxustegi Ziarda andrea, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko Administrazio Orokorreko Teknikaria

► MAHAIKIDEAK

Bizkaiko Foru Aldundia

- Gizarte Ekintza Saila. Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
M^o Dolores Menchaca Araluce andrea, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko burua
Ordezkoa: María Elena Iturrizaga Larrabeiti andrea, Plangintzako eta Ikerlanetako Zerbitzuko burua

Bizkaiko Foru Aldundiko 70/2012 FORU DEKRETUAK, apirilaren 3koak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren araudi organikoa onesten duenak, adierazitakoari jarraituz, "Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren xedea da, bere egoera pertsonalagatik, sozialagatik edo familia-egoeragatik, bizitza normala, duina eta osoa garatzeko arazoak dituzten herritarrei zerbitzuak ematea: mendetasuna duten pertsonen, babes-gabezia egoeran dauden edo tratatu txarrak jasan dituzten emakumeen eta adingabekoen eta gizartean baztertuta dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen. Horretarako, giza garapen iraunkorra sustatzen du, eta, beraz, genero politikak eta lankidetzak eta garapen politikak diseinatzen ditu".

- **Gizarte Ekintza Saila. Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia**
Xabier Legarreta Gabilondo jauna, Berdintasunerako zuzendari nagusia
Ordezkoa: Cristina Sarduy Gainza andrea, Genero politiken idazkari teknikoa

Bizkaiko Foru Aldundiko 70/2012 FORU DEKRETUAK, apirilaren 3koak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren arudi organikoa onesten duenak, adierazitakoari jarraituz, "Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren xedea da, bere egoera pertsonalagatik, sozialagatik edo familia-egoeragatik, bizitza normala, duina eta osoa garatzeko arazoak dituzten herritarrei zerbitzuak ematea: mendetasuna duten pertsonen, babes-gabezia egoeran dauden edo tratatu txarrak jasan dituzten emakumeen eta adingabekoen eta gizartearen baztertuta dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen. Horretarako, giza garapen iraunkorra sustatzen du, eta, beraz, generopolitikak eta lankidetzak eta garapen politikak diseinatzen ditu".

- **Lehendakaritza Saila**
Anselmo Ardanza Sustatza jauna, Funtzio Publikoko zuzendariordea
Ordezkoa: Miren Begoña López-Uribarri Goikolea andrea, Langileen Zerbitzu Juridikoko burua

Bizkaiko Foru Aldundiko 15/2012 FORU DEKRETUAK, otsailaren 14koak, Lehendakaritza Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onesten duenak, ezarritakoari jarraituz, foru-departamentu horri eskumenak aitortzen zaizkio Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioan, honako arlo hauetan: udal-harremanak, hirigintza, lurralde-antolamendua eta herri-administrazioa.

- **Ekonomia Sustapeneko Saila**
Izaskun Artetxe García andrea, Enpresa Sustapeneko Zerbitzuko burua
Ordezkoa: Juan José Duque Murua jauna, Informazio Egituren Ataleko goi-mailako teknikaria

Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 21eko 23/2012 FORU DEKRETUAREN arabera (Ekonomia Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen da Dekretu horren bitartez), sail horri honako jardun-arlo hauek dagozkio, besteak beste: enpresa-izaerako jarduerak bultzatzea, Bizkaian kultura ekintzailea sustatzea, enpresaren alor guztietan berrikuntza txertatzea, azpiegitura ekonomiko eta sozialak garatzea, eta laneratzeko politikak nahiz enplegarritasuna sustatzeko eta enplegarritasunari eusteko politikak garatzea.

Eusko Jaurlaritza

- **Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea**
Izaskun Landaia Larizgoitia andrea, zuzendaria
Ordezkoa: Ana Alberdi Zubi andrea, Idazkari nagusia

Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea erakunde publikoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Idazkaritzari atxikita dago. Gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzearen alde lan egiteko sortu zen. Gure erkidegoan sortzen diren sexuaren arabera diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak aztertzeako tresna da, eta, hori oinarri hartuta, zuzenketa-neurriak bultzatzea du helburu.

Lehendakariaren 34/2013 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duenak, lehenengo artikuluan adierazitakoari jarraituz, "Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitzen zaizkio ezabatutako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren egitekoak, giza baliabideak eta baliabide materialak, bigarren xedapen gehigarrian Herri Administrazio eta Justizia Sailari esleitutakoak izan ezik, eta laugarren xedapen gehigarrian Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari esleitutakoak izan ezik".

- Segurtasun Saila

Ana María Reka Esparza andrea, Sailburuaren Kabineteko zuzendaria

Ordezkoa: Gervasio Gabirondo Fernández jauna, Ertzaintzaren zuzendaria

Lehendakariaren 20/2012 Dekretuak, abenduaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, eta 194/2013 Dekretuak, apirilaren 9koak, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoei jarraituz, Segurtasun Sailari dagozkio eskumen hauek: Autonomia Erkidegoko polizia; hauteskunde-administrazioa; babes zibila, eta larrialdiei aurre egitea; Autonomia Erkidegoko errepideetako trafikoko polizia; joko, apustu eta ikuskizunak; segurtasun-arloko transmisio eta komunikazioak; polizia-ibilgailuak; meteorologia; sailari atxikitako erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta baltzu publikoak (Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia) zuzentzea, legeen eta araudien arabera; eta legeek eta araudiek eman diezazkieten gainerako ahalmenak.

- Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saila

Manuel Valín López jauna, Justizia zuzendaria

Ordezkoa: Roberto Moreno Álvarez jauna, Helduen Justizia Zerbitzuko burua

Lehendakariaren 34/2013 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duenak, bigarren artikuluan adierazitakoari jarraituz, "Herri Administrazio eta Justizia Sailak hartuko ditu emakumearen aurkako indarkeriaren biktimez zuzenean arduratzeko egitekoak".

- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria

Ordezkoa: José Luis Madrazo Juanes jauna, Familia Politika eta Komunitate Garapenerako zuzendaria

Lehendakariaren 34/2013 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duenak, hirugarren artikuluan adierazitakoari jarraituz, "Enplegu eta Gizarte Politiketako sailari atxikitzen zaizkio Genero Indarkeriaren Biktimentzat Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua, ordainketa bakarreko diru-laguntzak eta emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei arreta eskaintzen dien profesionalei aholkua eta laguntza emateko kudeaketa integratua, baita horiei dagozkien giza baliabideak eta baliabide materialak".

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

M. Jesús Gemma Múgica Anduaga andrea, Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria

Ordezkoa: Fátima Ansotegi Elordi andrea, Sailburuaren Kabineteko zuzendaria

Lehendakariaren 20/2012 Dekretuak, abenduaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, eta 195/2013 Dekretuak, apirilaren 9koak, Osasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoei jarraituz, Osasun Sailari dagozkio eskumen hauek: sanitatearen plangintza eta antolamendua; osasun publikoa eta elikadura-higienea, zainketa epidemiologikoa, farmazia-antolamendua; kontsumoa; droga-menpekotasunak; sailari atxikita dauden erakunde autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta araudiek ezartzen dutenaren arabera.

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturen Saila
Begoña Garamendi Ibarra andrea, Hezkuntza Berrikuntza zuzendaria
Ordezkoa: José Manuel Bufanda Arizmendi jauna, Kabineteko zuzendaria

Lehendakariaren 20/2012 Dekretuak, abenduaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, eta 193/2013 Dekretuak, apirilaren 9koak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, ezarritakoei jarraituz, Osasun Sailari dagozkio eskumen hauek: irakaskuntzaren alorrean Autonomia Estatutuan ezartzen diren eskumenak, bai erregimen orokorrekoak, bai erregimen berezikoak, etapa eta maila guztiak barne direla, eta goi-mailako hezkuntza, bai eta bizitzan zehar kualifikazioak eskuratzea edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerak ere; lanbide-heziketa osoarentzako planifikazio estrategikoa, diseinua eta jarraibideak, heziketa horrek bizitzan zehar kualifikazioak eskuratzea edo emendatzea ekarriko du, eta hartarako Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzari baliatuko da, betiere zerbitzu horren erantzukizun barruan; zientzia-alarreko politika; ikerketa teoriko zein aplikatua sustatu eta koordinatzea; hizkuntza-politika; euskara sustatzea; historia- eta arte-ondarea kudeatu eta zaintzea; museo, liburutegi eta artxibategiak; artearen eta kulturaren arloko jarduerak eta horien zabalkundea; kirolak; gazteria; gizarte-hedabideak; irratien kontzesioak eta frekuentzien esleipena; sailari atxikita dauden erakunde autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta araudiek ezartzen dutenaren arabera; eta legeek eta araudiek eman diezazkizoten gainerako ahalmenak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak eta mankomunitateak

- Abadiñoko Udala
Yanire Moreno Manzano andrea, zinegotzia
- Ermuko Udala
Natividad Alonso Estalayo andrea, zinegotzia
Ordezkoa: Amaia Rojas Ruiz andrea, Barakaldoko zinegotzia
- Galdakaoko Udala
Ibon Uribe Elorrieta jauna, alkatea
Ordezkoa: Jane Eyre Urkieta Zuzaeta andrea, Foruko alkatea

53/2003 Foru Dekretuak, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuenak, ezarritakoari jarraituz, EUDEL – Euskal Udalerrien Elkarteak izendatuko ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko hiru udalerriak eta mankomunitateak ordezkaritza, Behatokiaren osoko bilkuran parte har dezaten.

EUDEL – Euskal Udalerrien Elkarteak ere sinatu zuen, beste erakunde batzuekin batera, Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko erakundearen arteko akordioa, eta, horrez gainera, akordio horren jarraipen Batzordeko kide ere bada.

EUDEL – Euskal Udalerrien Elkarteak osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoa ia udalerri guztiek. Hala, gainerako erakunde guztiekin harremanetan jartzeko ordezkaritza egoki eta eraginkorra da politika publikoak koordinatzeko eta adosteko prozesuetan.

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarteak eta erakundeak

- Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiken Arloak bultzatutako Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako Foroaren ordekarari gisa:

SIM ROMI – EMAKUME IJITOEN ELKARTEA.

Rosa Jiménez Jiménez andrea

Ordezkoa: LANDA XXI – Landa-eremuko Emakume eta Familien Elkarte.

Amaia Aberasturi Larrucea andrea

Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako Foroa foro aholku-emailea da, eta, han, kontuan hartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduten duten emakumeen kolektiboek egindako proposamenak. Era berean, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Bizkaiko III. Foru Planaren (2009-2011) jarraipena egiteko mekanismo dinamikoak ezartzeko aukera ematen du.

- Genero-indarkeriaren aurkako arlotik:
ARGITAN – Emakumeentzako Aholku Etxea
Karmele Ozaita Andrés andrea, presidentea
Ordezkoa: Blanca Pangua Bedia andrea, batzordekidea

“ARGITAN” Emakumeentzako Aholku Etxea 1996ko martxoan jarri zen martxan. Desberdintasuneko, diskriminazioko eta sexu-indarkeriako egoerak pairatzen dituzten emakumeen beharrei erantzutea du helburu, kontuan hartuta, betiere, egoera horiek hainbat modutara ager daitezkeela.


Batez ere lege- eta lan-aholkuak, sexu- eta psikologia-laguntza eta gizarte-arloetako aholkuak ematen ditu. Horiez gainera, hainbat gairi buruzko jarduerak ere egiten ditu, betiere, genero-ikuspegia oinarri hartuta (tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak, eztabaidak), eta salaketa-, aldarrikapen- eta kontzientziazio-lana ere egiten du.

- Genero-indarkeriaren aurkako arlotik:
AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Modulua
Marta Dolado Galíndez andrea, aholkulari juridikoa
Ordezkoa: Ana Fernández de Garayalde Ulacia, soziologoa eta zentroko koordinatzailea

Auzolan Laguntza Psikosozialeko Modulua irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta lanean dihardu 1982az geroztik, osasun-maila hobetzeko, alderdi bio-psiko-soziala landuz.

Honako arlo hauetan ematen du zerbitzu: laguntza psikologikoa, lege-aholkularitza, helduen, haurren eta gazteen osasun mentala, ugaltze-osasuna, alkoholismoa eta toxikomaniak.

BIZKAIKO GENERO-INDARKERIAREN BEHATOKIAREN ORGANIGRAMA 2014



Araudia

Ondoren xehaturiko arau-zerrendak behatokiaren sorkuntzari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko alderdiak bermatzen ditu. Nabarmengarria da 2013an onetsitako azken dekretu horrekin, osasunaren eta hezkuntzaren esparruak txertatzen direla Behatokian, eta honenbestez, Behatokiaren konfigurazioa osatzen dela, esku hartzen duten eta atal horretan eragina duten esparru guztiei dagokienez.

- ▶ 53/2003 FORU DEKRETUA, martxoaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzen duena (BAOren 63. zk., 2003ko apirilaren 1ekoa).
- ▶ 188/2004 FORU DEKRETUA, azaroaren 9koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldatzen duena (BAOren 226. zk., 2004ko azaroaren 23koa).
- ▶ 5016/2005 FORUAGINDUA, apirilaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia onartzen duena (BAOren 82. zk., 2005eko maiatzaren 3koa).
- ▶ 5/2010 FORU DEKRETUA, otsailaren 2koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldatzen duena (BAOren 29. zk., 2010eko otsailaren 12koa).
- ▶ 75/2013 FORU DEKRETUA, maiatzaren 21ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu zuen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldatzen duena. (BAOren, 100. zk., 2013ko maiatzaren 27koa).

2013-2017ko Lan Planaren 2014ko garapenaren laburpena

Jarraian, 2013-2017 denbora-tarterako ezarritako lan-plana garatuz 2014an gauzatu diren egitekoen laburpena jasotzen da.

Administrazio- eta funtzionamendu-zereginak

Behatokiak bi mailatan egiten du lan: batetik, Plenoa, eta bestetik, Adierazleen Lan Taldea (ALT).

2014an, ezarri ziren ohiko bi osoko bilkurak egin dira, zehazki, otsailaren 28an eta azaroaren 14an.

Otsailaren 28ko bilerak Behatokiaren 2013ko Jarduera Memoriaren onespena erraztu zuen, eta baita aurrera doan urtean gauzatu beharreko jardueraren ezagupena ere, betiere lau urtean behingo Lan Planari jarraiki.

Azaroko bilera, berriz, honako txosten honen emaitza nagusien aurkezpenean kontzentratu zen: “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Gizarte babesaren eremua, poliziaren eta justiziaren arloak, 2013”.

Adierazleen Lan Taldeari dagokionez, 2014a foro horretarako berrikuntza-urtea izan dela nabarmendu behar da, aldaketak egon baitira Eusko Jaurlaritzako ia ordezkari guztiei dagokienez. Lehenik eta behin, konfigurazioari dagokionez, ALTan Eusko Jaurlaritzaren bi atal berri sartzen dira, zehazki, Osasuna eta Hezkuntza, eta Administrazio autonomikoan egiturazko hainbat aldaketa jazo ondoren, Gizarte Politikan eskuduna den Saila txertatu da. Horrez gain, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko eta Segurtasun Saileko ordezkarien artean ere aldaketak erregistratu dira.

Berritutako lan-talde hori hiru aldiz biltzen da urtean, eta bileren edukia ohiko jardueren ingurukoa izan ohi da, hots, lurraldeko datu-bilketarekin eta ondoriozko txostenak lantzearekin lotutako jardueren ingurukoa.

Hedapenarekin eta harremanekin lotutako zereginak: BGIBren harremanak eta jardueren eta produktuen hedapena kudeatzea

Administrazioetatik, hirugarren sektoretik eta herritarrengandik jasotako informazio- eta dokumentazio-eskariei erantzuten die Behatokiak. Bere lana hedatzeko eta ikusarazteko bide gisa, genero-indarkeria eraztearekin loturako jardunak eta produktuak zabaltzen ditu Behatokiak bere webgunearen bitartez, Behatokiak berak sorturiko jardunak eta produktuak nahiz kanpoan sorturikoak, hain zuzen ere.

2014ko ekitaldian, webgunearen aldian behingo eguneratzeen bitartez gauzatu ahal izan da zabaltze hori: Behatokiaren jardunarekin loturiko informazio egoki guztia sartu da, dokumentu-funtsa areagotu da argitalpen berriak erregistratuz, emakumeen aurkako indarkeriari buruz Bizkaian dauden baliabide guztiei buruzko informazioa eguneratuta mantendu da, eta arazo horrekin lotuta beste zenbait erakundek sortu dituzten azterlanak eta ikerlanak txertatu dira.

Horrez gainera, martxoan, ekainean, urrian eta abenduan Boletín OVGB/BGIB Buletinaren 32., 33., 34. eta 35. zenbakiak argitaratu dira, hurrenez hurren. Argitalpen horren bitartez, genero-indarkeriaren esparruan kalitate handikoak eta gaur egungoak diren hainbat edukiren hedapenari jarraipena eman diogu, eta horren zehaztapenean Adierazleen Lan Taldeko kideek parte hartu dute.

Orobat, ekitaldi honetan webgunea areagotu da, Behatokiaren webgunea areagotu dugu eta ingelesezko atal bat txertatu dugu, erakundeari eta erakundeak garaturiko produktu nagusiei buruzko informazioarekin.

Datu-bilketa: urtekoa eta seihilekoa

Ekitaldi bakoitzean, Behatokiak datu-bilketako bi prozesu garatzen ditu.

Urteko lehen seihilekoan, urteko datu-bilketari ekiten zaio, aurreko urtean, hots, 2013an, esparru sozial, polizial eta judizialean zerbitzu publikoen arreta jaso duten kasuen bolumena ezagutzeko, eta baita emakumeen aurkako indarkeriako egoeretarako arreta-baliabideen eskuragarritasuna eta ezaugarri nagusiak ezagutzeko ere.

Eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta aztertzeko etengabeko organoa den aldetik, 2014an datu-bilketarako alorrak areagotu dira, eta ondorioz, baita informazio-iturriak ere; honako hauek eman dute informazio guztia: Bizkaiko udalerriak eta mankomunitateak; Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila (Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua); Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila; Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila, Azterlan eta Analisisien Dibisioaren bitartez; Herri Administrazio eta Justizia Saila, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren bitartez (BLZ); eta Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua. Horrez gain, hainbat dokumentu-iturritara ere jo dugu, ohikoa den legez, honako hauei buruzko datuak biltzeko: prozesu judizialak (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia), arreta mediko forensea (Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutua), eta 2014an, baita ere, genero-indarkeriaren biktimak diren emakume atzeritarrei emandako bizileku-baimenak eta lan-baimenak (Genero Indarkeriarako Gobernuaren Delegazioa).

Halaber, urteko bigarren seihilekoan, 2014ko lehen seihilekoari buruzko datuak biltzeko prozesuari hasiera eman zaio, eta Lurralde Historikoaren barnean arretarako berezko baliabideak dituzten zazpi mankomunitateetako seik eta 21 udalerriek hartu dute parte datu-bilketa horretan eta baita Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak (Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua), Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak (Analisi Arloa), Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak ere (azken horrek, lehen aldiz). Esparru judizialeko informazioa edukitzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako estatistiketatik datuak kontsultatzen eta ateratzen dira.

Aurten, galdeketa digitalaren funtzionamendua hobetzeari, informazio-eskaria argitzeari eta datuetan kalitate handiagoa lortzeari buruzko aldaketak bildu dituzte bi datu-bilketetan erakundeetara zuzendutako formularioek.

BGIBren aldizkako produktuak eta txostenak egitea

2014an, honako urteko bi txosten hauen edizio berriak landu eta argitaratu dira: batetik, “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Harrera, Aholkularitza juridikoa, Laguntza psikologikoa, Familietan esku hartzeko programa espezializatua. Bizkaiko Lurralde Historikoa (2013)”, eta bestetik, “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak (2013)”.

Lehenengoak informazio eguneratua ematen digu, aurrera doan urteari dagokiona, eta Bizkaian indarkeria mota hori pairatzen duten emakumeei eman beharreko arreta errazten duten baliabide eta zerbitzu publikoen katalogori buruzkoa.

Eta bigarrenengoak, aldiz, aurreko urtean arreta emandako kasuei buruzko informazioa ematen du, eta esku-hartzearen arabera hiru arlo handitan antolatuta dago: esku-hartze soziala, poliziala eta judiziala; horiek, era berean, hainbat azpiarlotan banatuta daude. Horietako bakoitzak txostenari dagokion erreferentzia-urteko datuen deskribapen-analisirako atal bat biltzen du, bilakaera-ikuspegiarekin batera, datuak alde batera utzi gabe; izan ere, datuak hainbat formatutan eskaintzen dira, erabilera errazte aldera. 2013ko datuei buruzko edizio berri honetan, nobedade gisa, honako hauekin loturiko informazioa ere bildu da: Enplegu Saila; gizarte-laguntzak (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta); eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakume atzeritarrei emandako aldi baterako bizileku-baimenak eta lan-baimenak.

Bestalde, ohiko joerari eutsiz, sei hilean behingo datu-bilketarekin amaitzeko, 2014an “Udalaren Informazio-orria” landu eta igorri da azaroaren 25a baino lehen; BGIBk parte hartzen duten tokiko udal-erakundeetarako lantzen duen txosten indibidualizatua da “Udalaren Informazio-orria”. Oraingoan, arreta emateko berezko baliabideak dituzten 27 toki-erakundek (21 udalerri eta 6 mankomunitate) txosten mota hori jaso dute; edizio honetan, aurreko urtean produktu horri buruz egin zen balorazio-prozesuaren ondoriozko nobedadeak eta hobekuntzak hartzen ditu barnean edizio honek. .

Azkenik, eta Behatokiaren ohiko eginkizunekin jarraitzeko, aztergai dugu ekitaldian honako tresna hauek eguneratu dira: “Genero-indarkeriaren alorreko baliabideen mapa”, “Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoko Atlasa” eta “On-line dokumentu-kudeatzailea”. Emakumeen aurkako indarkeriako egoeretan arreta emateko baliabideetatik ateratako informazioa biltzen dute arestian aipaturiko hiru tresnek, Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta-esparruetako baliabideetatik ateratakoa, hain zuzen ere. Arreta-sarearen berezitasunei eta dokumentu-funtsari buruzko informazioa da: berdintasun-planak eta -programak, indarkeriaren aurkako planak eta programak, tokiko koordinazio-protokoloak, eta Europako nahiz nazioarteko dokumentazioa.

“Prebentzio- eta arreta-arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua”ren hirugarren edizioa lantzea.

Lan Plana betez, “Prebentzio- eta arreta-arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua”ren hirugarren edizioa landu zuen 2014an Behatokiak; lau urtean behin argitaratzen den dokumentu horren hirugarren edizioa 2006an eta 2010ean egindako beste bi edizioen ondoren (hurrenez hurren) atera da.

Hirugarren edizioa lantzeko, BGIBk 2013an landutako “Gomendioak eta Hobetzeko Proposamenak. II. Txostena” hartu da erreferentzia gisa; horrela, aipaturiko dokumentua sortzeko gauzaturiko prozesuan identifikaturiko hobekuntza-alorrek hirugarren Eskuliburua osatzen duten jardunbideen hautaketa bideratu dute. Horren ondorioz, honako hiru esparru hauen inguruko 33 jardunbide eta esperientziaz osaturiko bilduma eskaintzen digu horrek: batetik, **prebentzioa**, zeharkakotasunaren, ahalduntzearen, baterako hezkuntzaren eta komunikazioaren bitartez interpretatua; bigarrenik, **errealitatearen ezagupena**, zerbitzu publikoetako datu-erregistroari eta ikerketari jarraiki; eta hirugarrenik, **arreta**, arreta-zerbitzuetan, profesionalentzako prestakuntzan eta erakunde-koordinazioan ardaztuta dagoena.

BGIBren jarduerak 2014. urtean

Osoko bilkurak

Behatokiko Osoko Bilkurak urtean bitan egiten ditu ohiko osoko bilkurak; eta ez-ohikoa lehendakaritzak deitzen duen guztietan, lehendakaritzak berak eskatuta, edo gutxienez kideen herenak eskatuta.

2014an ohiko bi bilera egin dira, horietako bat otsailaren 28an, eta bestea, berriz, azaroaren 14an.

URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
	28									14	

Ondoren, bilera horietan landutako edukiak laburbilduko ditugu:

► 2014ko otsailaren 28ko bilera

Behatokiaren Jarduera-memoria aurkeztu eta onartu da 2013an.

Era berean, Behatokiak 2014an garatu beharreko jarduerari buruzko informazioa ere aurkeztu da. Horri dagokionez, eta egungo Lan Plana Europan proiektatzeko ardatzaren barnean harturiko eginkizunekin lotuta, BGIBk tokiko udal-erakundeetara honako informazio hau hedatzeko aukera proposatu eta onartu da: Europako finantzaketaren esparruan dagokion informazioa, Idazkaritza Teknikoak gai horretan egindako dokumentu-jardunbidetik ateratakoa.

Halaber, “El Observatorio de la Violencia de Género en Bizkaia (OVGB): Una experiencia de Buenas Prácticas” ponentzia Oñati Socio-Legal Series aldizkarian argitaratu izanari buruz Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak (LSNE) emandako balorazioaren berri ere eman da; ponentzia hori Behatokiko idazkari Berta Díaz Arbesú andreak aurkeztu zuen “Genero-indarkeriari buruzko nazioarteko biltzarra: Elkarguneak” deritzon (BGIBak oantolatua 2013an).

► **2014ko azaroaren 14ko bilera**

“Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Gizarte babesaren eremua, poliziaren eta justiziaren arloak, 2013” txostenaren emaitza nagusiak aurkeztu dira, eta 2014ko lehen seihilekoari buruzko datuak biltzeko eta horren ondoriozko udal-txosten indibidualizatuak (Udalaren Informazio-orria) lantzeko prozesuko gertakarien berri eman da.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

[2014ko otsailaren 28ko bilera](#)

[2014ko azaroaren 14ko bilera](#)

Adierazleen Lan Taldearen (ALT)

Adierazleen Lan Taldearen (ALT) sorkuntza Behatokiaren 2004ko urriaren 22ko osoko bilkuran onartu zen, eta 2005eko urtarrilaren 20an gauzatu zen; ALTren helburuak honako hauek dira; batetik, datu zorrotzak eta fidagarriak izatea ahalbidetzen duten informazio-iturriak identifikatzea eta iturri horietarako sarbidea izatea; bigarrenik, eskuragarri dauden datuak ezagutzea eta biltzea; eta hirugarrenik, emakumeenganako indarkeriaren fenomenoaren larritasuna balioesteko adierazlerik egokienak ezartzea, homologa eta denboran aldera daitekeen oinarri bat edukita. Etengabeko informazio-sistema bat ezartzearekin loturiko eginkizunez gain, Lan Taldeak bere gain hartzen du Behatokiaren Plenoak enkargatzen dizkion guztiak lantzeko egitekoa.

Behatokiaren diziplina anitzeko ikuspegiari eusten dio Lan Taldeak, organoa osatzen duten ataletako hainbat teknikariz osatuta egonik; bestalde, ekitaldi honetara arte, esparru sozialean, polizialean eta judizialean ardaztuta egon da. 2014an, foro tekniko horren konfigurazioak hainbat aldaketa izan zituen, aurreko ekitalditik Plenoan erregistratutako aldaketez gain. Horrela, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko ordezkariak sartu dira Behatokian (bi sail horiek Taldean sartu eta gero, 12 erakundek osatzen dute gaur egun Lan Taldea), Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko ordezkaria alde batera utzi gabe (BGIBren arlo funtzionala, gobernu autonomikoan sartutako egiturazko aldaketen ondoren organoan berriz sartu dena). Era berean, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko ordezkaria ere aldatu dela erregistratu da: 2014an, Emakundeko Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Saileko arduraduna izendatu zen eginkizun horretarako (duela gutxi sortu zen arlo hori); Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko ordezkaria ere aldatu da. Horrek guztiak esan nahi du, ekitaldiaren amaieran, ALTn berrikuntza sakona gertatu dela foroan parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzaren eskumen-arloei dagokienez.

Jarraian, 2014an ALTn parte hartu duten erakunde eta pertsona ordezkarien zerrenda jaso dugu:

Bizkaiko Foru Aldundia

- Gizarte Ekintza Saila. Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
Berta Díaz Arbesú andrea, Emakumearen Ataleko burua (Lantaldeko koordinatzailea)
Ordezkoa: Maria Dolores Menchaca Araluce andrea, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko burua
- Gizarte Ekintza Saila. Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia
Cristina Sarduy Gainza andrea, Genero Politiketako idazkari teknikoa
- Ekonomia Sustapeneko Saila
Isaskun Artetxe García andrea, Enpresa Sustapeneko Zerbitzuaren burua
Ordezkoa: M.^a Victoria González Manso andrea, Saileko teknikaria (ALTra maiz bertaratzen da)

Eusko Jaurlaritza

- Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea
Raquel Raposo Acevedo andrea, Programak eta Prestakuntza Saileko Arduraduna
Ordezkoa: Leyre Sologuren Etxenagusia andrea (ALTra maiz bertaratzen da)
2014ko maiatzaren 29tik:
M.^a Socorro Álvarez Fernández andrea, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Saileko arduraduna
Ordezkoa: Irune Lauzirika Jauregi andrea, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Saileko teknikaria
- Segurtasun Saila. Azterketa Arloa.
Marimar Rueda Fernández andrea, Estatistika Arloko burua
2014ko urriaren 7tik:
Josu Ibarretxe Lekue jauna, Azterlan eta Analisisien Dibisioko teknikaria
Ordezkoa: José Luis Yanguas Pérez, Azterlan eta Analisisien Dibisioko teknikaria
- Herri Administrazio eta Justizia Saila
Roberto Moreno Álvarez jauna, Helduen Justizia Zerbitzuko burua
Ordezkoa: Carmelo Santoyo Alzuri jauna, EAEko emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako koordinazio-zentroko arduraduna (ALTra maiz bertaratzen da)
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Ana María Aldekoa Arenaza andrea, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako teknikaria
Ordezkoa: Idoia Ebro Negro andrea, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako teknikaria
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Isabel Mendizabal Zabala andrea, Berritzegune Nagusiko aholkularia
Ordezkoa: Luisa M.^a Puertas Peña andrea, Berritzegune Nagusiko aholkularia
- Osasun Saila
Idoia Perea Alvaré andrea, Berdintasuneko teknikaria
Ordezkoa: Miren Josune Ziarrusta Bilbao andrea, Osasun Sustapen eta Hezkuntzako teknikaria

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak eta mankomunitateak (EUEDEL)

- Ermuko Udala
Begoña Fernández Alcalde, Berdintasun-teknikaria
- Gernika-Lumoko Udala
Ixone Badiola Lekue andrea, Emakume Zerbitzuko teknikari arduradun

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarteak eta erakundeak

- ARGITAN – Emakumeentzako Aholku Etxea
Karmele Ozaita Andrés andrea, presidentea
Ordezkoa: Aintzane Riancho Blanco andrea, abokatua
- AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Modulua
Marta Dolado Galíndez andrea, abokatua
Ordezkoa: Miren Edurne Fernández Arias andrea, abokatua

ALTren jarduera 2014an

Adierazleen Lan Taldea 2014an egin diren hiru deialdietara bertaratu da (maiatzaren 16an, ekainaren 10ean eta azaroaren 7an). Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Sailaren instalazioetan egin dira bilera horiek, behatokiaren egoitzan, hain zuzen ere.

URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
				16		10				07	

Ondoren, bilera bakoitzean landutako edukiak laburbilduko ditugu:

► 2014ko maiatzaren 16ko bilera

Urteko lehen bilerak honako bi pertsona hauek Lan Taldean sartzeko balio zuen: batetik, Ainhoa Perea andrea, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila ordezkatzuz, eta bestetik, Isabel Mendizábal, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila ordezkatzuz. Aurreko urtean Behatokiaren Plenoan sartu eta gero, ALTn hasi dira bi Sail horiek lan egiten.

Bestalde, beste bi pertsona ere sartu dira, zehazki, honako hauek: batetik, Ana Aldekoa andrea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ordezkatzuz (BGIBren arlo funtzionala, gobernu autonomikoan sartutako egiturazko alaketen ondoren organoan berriz sartu dena); eta bestetik, Socorro Álvarez andrea, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen barneko Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Saileko arduraduna, erakunde horrek Lan Taldean duen ordezkari berri gisa.

Bilera horretan, Adierazleen Lan Taldeak 2014an gauzatutako jardueraren programazio-proposamena azaldu zen, eta horrez gain, urteko Lan Plana onartzea ere erabaki zen.

Udalerrietako Informazio Orria balioesteko prozesuaren berri eman zen; prozesu hori 2013ko amaieran horrelako txostenei buruz garatu zela argitu behar da, eta txosten horiek urteko lehen sei hilekoari buruzko informazioa biltzen dutela. Emaizta nagusien azalpenari dagokionez, 2010ean lorturiko emaitzekin alderatuz gauzatzen da (2010ean antzeko beste prozesu bat garatu zen).

2013ko datuak biltzeko prozesuaren berri eman zen, prozesuan jarraitutako pausoak xehatuta, hainbat gairi buruzko alderdietan, hala nola jakinarazpenak, jarraipen-jarduerak, erakundeek prozesuan izandako partaidetza, erakunde eta pertsona informatzaileen arteko posta-trukea, epeen betearazpena, eta abar. Azalpena prozesuaren analisiarekin burutu zen, tokiko udal-erakundeetatik 2014an jasotako urteko datu-bilketaren garapenean eragina izan duten hainbat aldagai identifikatuta.

Foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak, 2014” dokumentua aurkeztu zen eta Lan Taldeko kideei dokumentu hori argitaratu baino lehen igortzea erabaki zen.

► 2014ko uztailaren 10eko bilera

“Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak: gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparrua (2013)” txostenaren aurrerapena aurkeztu zen. Esparru sozialeko eta esparru judizialeko programa eta zerbitzuei buruzko emaitzak aurreratu ziren, esparru polizialari buruzko datuen analisia lantze-prozesuan baitzegoen bilera egin zenean. .

► 2014ko azaroaren 7ko bilera

“Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriarekin lotuta artatutako kasuei dagozkien kopuruak: gizarte-, polizia- eta epai-babesari dagokion esparrua (2013)” txostena osorik aurkeztu zen.

Sei hilean behingo datu-bilketaren berri eman zen (2014ko lehen sei hilekoko datuak).

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

[2014ko maiatzaren 16ko bilera](#)

[2014ko uztailaren 10eko bilera](#)

[2014ko azaroaren 7ko bilera](#)

Kanpo-harremanak

Emakumeen aurkako indarkeria (eta oro har, herritar guztien indarkeria) arintzeko eta aztertzeko lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuek egindako informazio-eskaerei erantzuteko ardura du Behatokiak. Behatokiari egindako kontsultak argitzeko erabilitako baliabideak telefonoa eta posta elektronikoa dira (ovgb.bgib@bizkaia.net korporazio-postontziaren bitartez).

2014an, informazioa eta/edo aholkularitza jasotzeko BGIBrekin harremanetan jarri dira Administrazioako hainbat sail (batez ere, Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuetako Sailak), unibertsitate-komunitatea, enpresa pribatuak, komunikabideak, eta osasun- nahiz lege-esparruko hainbat profesional.

Ekitaldi honetan, eskabideak honako hauei buruzko informazioa eskatzeko izan dira: emakumezko biktimei arreta emateko baliabide publikoak (baliabide horietarako sarbide-baldintzak eta ezaugarriak); genero-indarkeriako kasuetan lagun egiteko edo esku hartzeko jarraibideak; estatistikak: analisia eta interpretazioa; argibide terminologikoak eta genero-indarkeriarekin loturiko proiektuetan laguntzeko eskaerak.

Bestalde, webgunea erabiltzen duten pertsonen dagokienez, hiru hilean behingo argitalpena jasotzea interesatzen zaien harpidetza-eskaerak Boletín OVGB/BGIB Buletinaren banaketa-zerrendetan sartu dira.

Webgunea

2004az geroztik, BGIBk sarbide libreko webgunea du Bizkaiko Foru Aldundiaren web-atarian (<http://www.bizkaia.net>); Foru Aldundiaren hasierako orriaren bitartez edota Gizarte Ekintzako Sailaren webgunearen bitartez sar daitezke erabiltzaileak BGIBren webgunera.

Webgunearen egitura gaztelaniaz eta euskaraz dago garatuta:

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html

Honako helburu hauei erantzuteko diseinatu zen gunehori: erakundearen jardura hedatzea; emakumeen aurkako indarkeria ikertzeari eta erazteari buruzko ezagupenak partekatzea; erakunde eta profesionalentzako lan-tresnak diseinatzea, eguneratzea eta hurbiltzea; eta azkenik, Behatokiaren eta erakunde solaskideen arteko ideia- eta dokumentazio-elkartrukea erraztea.

2014an, webgunean kokatutako informazioa etengabe eguneratzeko lana eta hobetzeko prozesua erakundearen komunikazio- eta hedapen-eginkizunetarako funtsezko baliabide gisa ezarri da. Alderdi formalean gauzaturiko hainbat aldagetakarekin elikatu da prozesu hori, gunek eskaintako edukietara sartzea eta bitarteko horrek eskatzen dituen berrikuntzak txertatzea errazten baitute horrelako aldagetek. 2013az geroztik, webgunean sartutako berrikuntzak posta elektroniko bidez jakinarazten zaizkie harpidedunei.

Bestalde, webgunea zabaldu zen, ingelesezko atal berri batekin; BGIBri buruzko informazio-laburpena du atal horrek eta erakundearen produktu nagusietarako sarbidea ematen du.

Webguneak 16 atal ditu (haietatik zortzik testuak jasotzen dituzte):

- ▶ **Definizioa:** organoaren aurkezpena, aurrekariak, helburuak, funtzioak eta dagokion araudiak.
- ▶ **Kideak:** Behatokia osatzen duten pertsonen zerrenda, bakoitzak zer kargu duen eta zer erakunde ordezkatzeko duen adierazita.
- ▶ **Bilerak:** egutegia eta osoko bilkuretan berretsitako dokumentuak.
- ▶ **Dokumentuak:** guztira, 95 dokumentu bilduta daude funts horretan, eta guztiak on line jaitsi eta kontsulta daitezke. Honela sailkatuta daude: protokoloak, legedia, nazioarteko baliabideak; azterketak eta gidak; Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak argitaratutako makroinkestak (“Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak, 2006”) eta “Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan”), Behatokiak berak sortutako dokumentazioarekin batera:
 - BGIBren Lan Planak (2004-2008) (2009-2012) (2013-2017)
 - BGIBren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia
 - Jarduera-memoriak (2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013)
 - “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloak” dokumentua (2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013)
 - “Etxean indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Bizkaiko Lurralde Historikoa. 2014” txostena.
 - “Prebentzio- eta arretra-arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua” argitalpena (2006ko, 2010eko eta 2014ko edizioak)
 - “Europar Batasunaren emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko zifrak, 2006” dokumentua
 - “Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa” azterketa, 2004-2008 epealdia eta 2009-2012 epealdia.
 - “Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundearen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak, 2009” (Argitalpenaren Sintesia/ Testu Osoa) dokumentua
 - Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak emandako Gomendioen Jarraipen eta Balantze Txostena. (2004-2008 epealdiaren amaiera). 2012
 - “Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundearen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenen II. txostena, 2013”

- **Baliabideen mapa:** datu-base eguneratua, aurrera doan urteko datuekin (2014); erakunde-esparruaren eta hirugarren sektorearen barnean, Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeekin esku hartzen duten baliabide eta entitateak biltzen ditu. Horrez gain, tokiko erakundeek BGIBri hedatzeko ematen dizkioten berdintasun-planak, indarkeriaren aurkako programak eta ekintza koordinatuko protokoloak lokalizatzea ahalbidetzen du tresna horrek. Mapak “baliabideen bilatzaile” izeneko aplikazioa dauka. Horri esker, zerbitzuen zerrendak lor daitezke (gizarte-arloko baliabideak, justizia-arloko baliabideak, elkarteak eta beste batzuk, indarkeriaren aurkako zerbitzu espezializatuak, polizia-arloko baliabideak, osasun-arloko baliabideak eta berdintasunerako tresnak) honako hiru bilaketa-aukera hauen arabera:

- Bizkaiko udalerri guztietako baliabideak guztira
- Aukeratutako udalerriari dagozkion baliabideak guztira
- Bizkaiko udalerri guztien barruan, aukeratutako arlo jakin batzuen baliabideak guztira


Maparen ataletako batek, **Berdintasun Tresnak** izenekoak, Bizkaiko toki-erakundeek sortutako dokumentu berriak hartu ditu 2014an, honako kategoria hauetan guztietan: emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnosiak eta planak, indarkeriaren biktimak diren emakumei eman beharreko arreta hobetzeko toki-protokoloak, berdintasunerako Udal-kontseiluetako erregelamenduak, genero-ikuspegia duten hiri-diagnosiak, berdintasun-ordenantzak, eta abar.

- **Adierazleak:** bi azpiatal dituen sarrera:
 - **Lan Taldea:** Adierazleen Lan Taldeko kideen zerrenda hartzen du barnean, bakoitzaren lanpostua, bakoitzak ordezkatzen duen erakundearen izena, egindako bileren egutegia eta bilera horietan onartutako dokumentazioa zehaztuta.
 - **Zifrak:** “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak (2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013)” dokumentua biltzen du.
- **Baliabideen-atlas:** hiru ataletan zatituta dagoen mapa-bilduma: **esparru soziala** (etxe-eremuan indarkeriaren biktimak diren emakumei arreta juridikoa eta psikologikoa emateko eta harrera egiteko Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden baliabideen estaldura, koordinazio-sistemen estaldura eta berdintasun-mekanismoen inguruan indarrean dauden politiken estaldura); **esparru poliziala** (Ertzaintzaren eta Tokiko Polizien arteko koordinazio-akordioak); eta **esparru judiziala** (Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegien, Epaitegi Bateragarrien eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren estaldura).
- **Dokumentu-kudeatzailea:** berdintasun-planak, udal-programak, tokiko protokoloak, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan, beste autonomia-erkidego batzuetan, estatuan, Europan eta nazioartean aplikatzekoak diren legediak biltzen dira. 2014an, Kudeatzailea eguneratu da; horrela, dokumentu ugari txertatu dira Kudeatzailean, bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasunerako toki-planen atalean eta etxe-eremuan indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumei eman beharreko arreta hobetzeko toki-protokoloen atalean. Era berean, lege autonomikoen eta Europako legeen bilduma ere handiagotu da.

- ▶ **Loturak:** Behatokiko erakundeen webguneetarako, Behatokiaren antzekoak diren bestelako erakunde eta behatokien webguneetarako eta beste hainbat erakunde, programa eta proiekturen webguneetarako esteken zerrenda.
- ▶ **Parte hartu BGIBren ebaluazioan:** online galdeketa, Behatokiaren eta horren webgunearen funtzionamenduari buruzkoa.
- ▶ **Buletina:** webguneko barne-orrien bitarteko sarbidea duen hiru hilean behingo argitalpen elektronikoa; horrela, argitalpen elektroniko horren azken ediziorako sarbidea (35. alea) ez ezik, argitaraturiko ale guztien historiako sarbidea ahalbidetzen du webguneak.
- ▶ **Hizkuntza:** botoi horri esker, gaztelaniazko, euskarazko eta ingelesezko bertsioetara alda gaitzke nahi dugunean.
- ▶ **Harremanetan jartzeko:** Behatokiaren lokalizazioari eta harremanetarako datuei buruzko informazioa ematen du (kokapena, helbide elektronikoa, telefono-zenbakia eta faxa).
- ▶ **Postontzia:** Behatokiaren posta elektronikoaren helbidea, ovgb.bgib@bizkaia.net.
- ▶ **Erabilerraztasuna:** webgunea errazago erabiltzeko informazioa ematen du. Behatokiak on line dagoen informazioa eskuratzeko eta kudeatzeko aukera-berdintasuna bermatzen die aniztasun funtzionala duten pertsonen edo informazioa eskuratzerakoan oztopo teknologikoak dituztenen. Horretarako, webguneko atal guztiak frogatu dira WAIk (Web Accessibility Initiative) emandako gomendioen arabera.
- ▶ **Web-mapa.**

Webgunearen erabilera

Gune horren erabilerari eta kontsulten erregistroari buruz, nabarmentzekoa da, aurtan ere, webguneko bistaratzeen kopurua hazi dela¹ aurreko ekitaldiekin alderatuta. 2014an, Behatokiaren webguneko 520.961 bistaratze erregistratu ziren, eta horrenbestez, aurreko urtearekin alderatuz (2013), % 54 igo da bistaratzeen kopurua. Denbora-ikuspegi handiagoari jarraiki, 2014ko zifra 2008an erregistratutakoa baino lau aldiz handiagoa da (129.501 bistaratze izan ziren 2008an).



2014ko bistaratzeen **hilabeteen arabera banaketak** argi eta garbi uzten du bi aldi goren egon zirela urte horretan, BGIBren webgunerako kontsultei dagokienez: **azaroa** eta **martxoa**; nazioarteko egutegian une esanguratsuak izan ziren bi hilabete horiek. Azaroan, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna izaten da (zehazki, azaroaren 25ean), eta hilabete horretan, bistaratzeen kopurua 54.000ra igo zen; urtekoa azken hiruhilekoko kontsulten batez bestekoa hileko 47.000 bistaratze izan ziren. Bestalde, martxoak, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta (martxoaren 8an), 2014. urte osoko bistaratze kopuru handiena izan zituen, ia 65.900, hain zuzen ere.

Datuak **webguneko atalen** arabera aztertuta, “dokumentuak” ataleko bistaratzeak guztizkoaren % 36,3 izan ziren 2014an; guztira, 189.300 bistaratze izan zituen webguneak 2014an, hots, aurreko urtean baino % 42,2 gehiago, eta 2009an baino ia hiru aldiz gehiago (2009a izan zen aztertutako lehen urtea). Era berean, martxoan eta azaroan erregistratu ziren webgunerako bisita gehien, dokumentu-funts hori kontsultatzeko.

¹Bistaratzeak: Erabiltzaileak sartu diren orrien kopurua.

Udal Harremanetarako Sarea (UHS)

Toki-erakundeek (112 udalerri eta 9 mankomunitate) eta Behatokiaren arteko komunikazioa funtsezko faktoreetako bat da Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriak duen errealitatea eta bilakaera ezagutzea ahalbidetzen duen datu- eta informazio-elkartruckerako. Datuak biltzeko urtero gauzatzen diren bi prozesuak (bat, urtekoa, eta bestea, sei hilekoa) lagungarriak dira tokiko erakunde bakoitzak agenteekin izandako erreferentziazko harremanak identifikatzeko, ezartzeko, mantentzeko eta eguneratzeko, Behatokiari dauden baliabideei eta arreta-datuei buruzko informazioa (aldian behingoa eta eguneratua) ematen dioten harremanak, hain zuzen ere, geroago aztertzeko.

Datuak jakinarazi eta gero, datu horiek aztertu eta tratatu egiten dira, eta horri esker, tokiko zerbitzu publikoen bitartez arreta jaso duten emakumeei emandako estaldurari buruzko estatistikak sortzeaz gain, Behatokiak kontsultarako eskaintzen dituen produktuak eguneratzen dira: genero-indarkeriaren esparruko baliabide-mapa, Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoko Atlas, eta azkenik, Behatokiaren webgunean eskuragarri dauden bi argitalpen nagusiak (“Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak ...” eta “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko ...”).

Zehazki, datuak biltzeko sei hilean behingo prozesua sortzeko helburua honako hau izan zen: Behatokiari dagokion gaiari buruzko datuak biltzeko prozesuak sistematizatzen laguntzea tokiko erakundeei. Partaidetza-indizeak eta ekarritako datuen kalitateak agerian uzten dute prozesu hori finkatzen ari dela eta urteko bilketaren antzeko emaitzak lortzen dituela. Prozesu hori amaitzean, berezko arreta-baliabideak dituzten toki-erakundeek eskura jartzen da “Udalerrietako Informazio Orria”; udalerriari eta mankomunitateari dagozkion datu espezifikoak eta funtzionatzen ari diren beste hainbat zerbitzu publikori buruzko datuak biltzen dituen txosten indibidualizatua da “Udalerrietako Informazio Orria”.

Datuak biltzeko urteko eta sei hilean behingo prozesuetan parte hartzeaz gain, Behatokira horren funtzionamenduari eta nobedadei buruzko kontsultak eta informazioa bidaltzen dituzte Udal Harremanetarako Sarea osatzen duten udalerri eta mankomunitateek, ohiko komunikabideen bitartez: posta elektronikoa (ovgb.bgib@bizkaia.net postontzia), posta idatzia eta telefonoa. Gainera, erakundearen Webgunea eta Boletín OVGB/BGIB Buletina dokumentuak, lan-tresnak eta loturiko bestelako informazioa zabaltzeko erabiltzen dira.

2014an, Udal Harremanetarako Sarea indartzeko lau urtean behingo egungo lan-planean bildutako hiru neurriek indarrean jarraitzen zuten; hiru neurri horiek aurreko etapan ezarri ziren lehen aldiz (2009-2012). Erakunde informatzaileek Boletín OVGB/BGIB Buletinaren “Sarean” atalean parte hartzea da arestian aipaturiko neurri horietako lehena; atal horri dagokionez, emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan tokiko erakundeek egindako lanaren erakusleihoa da. Ekitaldi honetan, argitalpen horren 32. zenbakian Lea Ibarra Mankomunitateko profesionalek azaldu dute beren iritzia, 33. zenbakian, berriz, Lea-Artibai Mankomunitatekoek, eta 34.ean, azkenik, Elorrioko udalekoek.

Bigarren neurriari gagozkiola, Sareko informatzaileei Adierazleen Lan Taldeko bileraren batera joateko egindako gonbidapenean datza. Ekitaldi honetan, ALTren agendak eta integratze-prozesuak ez dute faboratu Taldeetik kanpoko pertsonak egin diren bileretara joatea.

Azkenik, BGIBren jardunaren berri emateko informazio-bileretan BGIBko ordezkariak egon daitezten eskatzeko aukeran datza UHS indartzeko hirugarren neurria; erakunde interesdunen udalerrietan egingo lirateke bilera horiek. Esparru horretan, 2014an, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak egindako eskabide bat erregistratu zen, eta otsailaren 24an informazio-bilera bat egin zen; esku-hartze sozialeko taldea bertaratu zen bilera horretara (gizarte-zerbitzuen koordinatzailea eta hiru gizarte-langile), eta baita Mankomunitateko berdintasun-teknikaria ere, Behatokiko Idazkaritza Teknikoko bi ordezkariak gain.

Emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoari eta fenomeno horren gaineko datuak erregistratzearen garrantziari buruzko esparru teoriko batekin hasi zen bilera hori, eta horren ondoren, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiari buruzko azalpen xehatua egin zen. Behatokiak datuak biltzeko abiarazten dituen prozesuen ezaugarriak nabarmendu ziren bilera horretan, zehazkiago, gizarte-esparruari dagokionez. Bilera amaitzeko, jasotako datuetan oinarrituta BGIBk sortzen dituen produktu nagusiak aurkeztu ziren, eta azkenik, produktu horiek in situ erakutsi ziren Behatokiaren webgunean.

Informazioa kudeatzeko sistema integrala

Informazioa kudeatzeko sistema integralaren bitartez, batetik, indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako arreten bolumenari buruzko datuak, eta bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateek horretarako dituzten baliabideen ezaugarriak biltzen, erregistratzen eta ustiatzen ditu Behatokiak.

Tokiko erakundeek beren ibilbidean Behatokiari eman dioten informazioa biltegitratzeko helburua duen datu-base batean datza tresna hori. Formulario digital pertsonalizatua dauka, eta beraz, bilketa berri bakoitzean, erakundeek beren formularioan jasotako datuak erkatzen dituzte, eta jada erregistratuta dagoenaren desberdina den informazioa baino ez dute aldatzen, ekitaldi berri bakoitzari dagozkion arreta-datuak betetzeaz gain. BackOffice aplikazioaren bitartez, fitxan erregistratu diren datuen zerrendak eta estatistikak lortzea errazten du sistemak.

Formularioak **“Laguntza”** izeneko atala dauka; atal horren bitartez, formularioa betetzeko jarraibideetara sar daiteke erabiltzailea. Era berean, Behatokiko Idazkaritza Teknikoa erreferentziazko erakundeen eskura geratzen da, telefono edota posta elektronikoz bidez eman dezakeen laguntza teknikorako.

Sistemak formulario digitalaren bi bertsio hartzen ditu barnean: bat, urtean behingo datu-bilketarako, eta bestea, sei hilean behingo datu-bilketarako. Eskuragarri dauden baliabideak eta arreta emandako kasuen bolumena eta ezaugarriak ezagutzeko, urtean behingo datu-bilketarako erabilitako oinarritzko galdeketa gaikako sei ataletan egituratuta dago:

- ▶ Tokiko erakundea
- ▶ Gizarte-baliabideak eta berdintasunerako baliabideak: Oinarritzko Gizarte Zerbitzua, Emakumearen edo Berdintasunaren Arloa, Berdintasun Plana, Berdintasun Eragilea, Berdintasun Kontseilua, Emakumeen Tokiko ekintza koordinaturako protokoloa, Berdinsarea eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Plana.
- ▶ Aholkularitza juridikorako baliabideak
- ▶ Arreta psikologikorako baliabideak
- ▶ Indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa emateko berariazko baliabideak
- ▶ Beste baliabide batzuk: familia-elkargunea (FE) gizarte-zerbitzuen alorrean, epaileak aginduta

Sei hilean behingo datu-bilketan erabilitako formularioak arreta emandako kasuen bolumena baino ez du aztertzen, baliabide-modalitatearen arabera:

- ▶ Aholkularitza juridikorako baliabideak
- ▶ Arreta psikologikorako baliabideak
- ▶ Indarkeriaren biktima diren emakumeei Babesa emateko baliabideak
- ▶ Beste baliabide batzuk: Familia-elkargunea (FE)

Kontzeptuekin lotutako zalantzak argitzeko eta datu-bilketan prozedura homogeneousak erabiltzearen garrantzia nabarmentzeko, formularioaren bi bertsioek kontsultarako atal bat dute, “**Definizio terminologikoak**”. Atal horren barnean, BGIBren ikuspegi analitikoa zentratzen duten emakumeen aurkako bi indarkeria moten definizioak agertzen dira (EAEko Erakunde arteko Akordioaren bitartez ezarritako esparruaren ondoriozkoa da BGIBren ikuspegi analitikoa); definizio horri dagokienez, ondoren aipaturiko dokumentuetatik atera da, eta dokumentu horietarako sarbidea ere ematen du:

- Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasatzen dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II.Akordioa
- Emakumeen aurkako indarkeria: Proposamen terminologikoak²

2014an, hainbat egokitzapen eta aldaketa txertatu dira bi formularioetan, funtzionamenduarekin loturikoak, eta baita emakumeen aurkako indarkeriako kasuetan emandako arretari buruzko datuak aztertzen dituen atalean hainbat aldaketa sartu ere, informazio-eskaria argitzeko eta hobetzeko

² Erakunde Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen baitan landutako dokumentua.

Baliabideen mapa

BGIBren webgunean kokatua, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko Bizkaian dauden baliabideei buruzko informazioa ematen du Baliabideen Mapak.

Mapa aldiari behin eguneratzen da, eta datu-basean baliabide berriei eta haiekin harremanetan jartzeko datuei buruzko informazioa sartzen da.

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko lanean modu batean edo bestean esku hartzen duten zerbitzuen funtzionamenduari eta ezaugarriei buruzko datuak biltzeko diseinatutako zazpi atalek osatzen dute mapa:

 Genero indarkeriaren arloko baliabideen mapa

Aukeratu



Baliabideen bilatzaile

- ▶ Erakundearen datuak
- ▶ Indarkeriaren aurkako zerbitzu espezializatuak
- ▶ Gizarte-baliabideak
- ▶ Polizia-baliabideak
- ▶ Baliabide judizialak
- ▶ Osasun-baliabideak
- ▶ Elkartek eta berdintasunerako tresnak, horrela sailkatzen dira:
 - berdintasun-planak,
 - indarkeriaren aurkako plan eta programak,
 - tokiko koordinazio-protokoloak,
 - berdintasun-kontseiluak,
 - jabekuntza-eskolak,
 - emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-ordenantzak,
 - genero-ikuspegia aintzat hartzen duten hiri-diagnostikoak.

Mapak bi bilaketa-aukera ematen ditu:

Udaletako fitxak: mapa geografiko baten gainean edo zerrenda baten gainean udalerri bat aukeratzean sistemak fitxa bat itzultzen du, udalerri horretan eskuragarri dauden baliabideak jasotzen dituena.

Baliabideen zerrenda: zerrendak hiru aukeraren arabera eskuratzeko aukera eskaintzen du:

- Mapan jasotako baliabide guztiak, udalerri guztietakoak;
- Aukeratutako udalerriko baliabide guztiak;
- Aukeratutako arloetako baliabide guztiak, udalerri guztietakoak

Horrez gain, tresna horri esker, datu-zerrenden forman ateratako erantzunak Excel formatura pasa daitezke, mapan bertan txertatutako aplikazio baten bitartez.

Honako kolektibo hauetarako erabilgarria izateko helburua du mapak:

- ▶ Arretan diharduten profesionalak eta erakundeak, emakumeen kontrako indarkeriaren aurka borrokatzeko tokiko baliabideei eta indarreko legediari buruzko informazioa aurki dezaketelako (udaletan edo mankomunitateetan abiarazteko planak, programak edo protokoloak).
- ▶ Eraginpeko pertsonak eta zerbitzuen erabiltzaileak, erabil ditzaketen baliabideei buruzko informazioaren eta harremanetarako datuen xehetasuna dela-eta.
- ▶ Politika publikoen arduradunak, Lurraldean gertatzen den indarkeriari buruz eskaintzen duen informazioa gaurkotasun egiaztatukoa baita, gizarte-gaitz hori erauzteko estrategia berriak diseinatzen laguntzeko aproposa, hain zuzen ere.
- ▶ Herritarrak/komunitatea, genero-indarkeriako egoeretan arreta ematean adituak diren baliabideak nahiz erakundeak identifikatzen dituztelako.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

[Genero-indarkeriaren alorreko baliabideen mapa, 2014](#)

Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean dauden baliabideen atlasa

Baliabideen Atlasak 16 mapaz osatutako bilduma da; mapa horiek honako hauen estaldura irudikatzen dute: batetik, esparru sozialean, polizialean eta judizialean Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriako egoeretan arreta emateko zerbitzuak; eta bestetik, ordezkaturiko toki bakoitzeko erakundeek aplikaturiko berdintasun-politikak (gizarte-zerbitzuen mankomunitatearen eta/edo udalerriaren arabera eta foru-eskualdearen edo -azpieskualdearen arabera).

2013an tresna hori sakonki berritu zen, esparru sozialari esparru poliziala eta judiziala gehitu baitzitzaizkion (ordura arte, Atlasak sortu zenez geroztik, esparru soziala baino ez zen irudikatzen). Eduki gehiago txertatze horren ondorioz, egiturarekin eta diseinu grafikoarekin lotutako aldaketa garrantzitsu jakin batzuk egin ziren, mapa eta atal guztien arteko operatibitatea errazte aldera. Gainera, 2013az geroztik, mapetan bildutako informazio guztia testu-formatuan eskuratzeko aukera ere eskaintzen du Atlasak, datu-taulen eta zerrenden bitartez; horrela, kontsultatzaileek informazio hori gorde edo inprima dezakete, dokumentua PDF formatuan zabaldu ondoren.

2014an, zegokion eduki-eguneratzea gauzatu zen, eta hobekuntza gisa, Atlasean grafikoki irudikatzen ziren datuen eguneratze-data ere txertatu zen atal bakoitzaren azalean, tauletan eta PDF dokumentuetan.

Atlasak jasotzen duen informazioa 2014ko maiatzean eguneratu zen, eta honela dago sailkatuta:


► ESPARRU SOZIALA

Planak

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, edizioen arabera. 2014.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan teknikari espezializatuen arabera, figura hori sortu zen urtea kontuan hartuta. 2014.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako planak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan onetsi ziren urtearen arabera. 2014.

Koordinazioa

- Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarea, BERDINSAREA. 2014.



- Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko tokiko eta eskualdeko protokoloak. 2014.

Harrera

- Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Harrera Baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2014.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako harrera-baliabideak, sortu ziren urtearen arabera. 2014.

Laguntza psikologikoa

- Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta psikologikoko zerbitzuak. 2014.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko arreta psikologikoko zerbitzuak, jarduerak zer urtetan hasi ziren kontuan hartuta. 2014.

Aholkularitza juridikoa

- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan (udalerrri bakoitzeko estaldura). 2014.
- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan (mankomunitate bakoitzeko estaldura). 2014.
- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, jarduerak zer urtetan hasi ziren kontuan hartuta. 2014.

► ESPARRU POLIZIALA

Akordio polizialak

- Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren alorreko akordio polizialak Bizkaiko Lurralde Historikoan, akordio-motaren arabera. 2014.
- Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren alorreko akordio polizialak Bizkaiko Lurralde Historikoan, sinatutako urtearen arabera. 2014

► ESPARRU JUDIZIALA

- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak Bizkaiko Lurralde Historikoan, barruti judizialaren eta sortutako urtearen arabera. 2014.
- Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ) Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2014.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

[Bizkaiko Lurralde Historikoak emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean dauden baliabideen atlasa, 2014](#)

Bizkaiko Lurralde Historikoko zifrak

Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Gizarte babesaren eremua, poliziaren eta justiziaren arloak³ txostenak hiru jardun-esparru horietan diharduten erakunde publikoek emandako informazioa biltzen du.


2014an, informazioa honako erakunde hauek eman zuten zuzenean: Lurraldeko 112 udalerririk eta 9 mankomunitateak;

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saila; Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketarako Saila; Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila; Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Saila; eta Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua.

Urteko nobedade gisa, nabarmendu beharrekoa da, batetik, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bi esparru berritako datuak eman dituela: Enplegua eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta; horrez gain, organo horren hizketakide da berriz ere, honako hauei buruzko datuei dagokienez³:

- Genero-indarkeriaren biktima izan diren Emakumeak Telefonoz Artatzeko Zerbitzua
- Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Ekintza Positiborako Neurriak Etxebizitzaren alorrean
- Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako laguntza ekonomikoak

Horrez gainera, txostenak honako bi dokumentu-iturri hauetatik ere biltzen ditu datuak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (prozesu judizialei buruzko datuak) eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutua (arreta mediko forenseari buruzko datuak). 2014an, beste iturri bat ere kontsultatu zen: Espainiako Gobernuaren Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioko Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza, hain zuzen. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakume atzeritarrei emandako aldi baterako bizileku-baimenei eta lan-baimenei buruzko datuak lortzea izan zen kontsulta horren helburua, dokumentuaren edizio honen barnean hartutako hirugarren informazio-esparru handia izanik.



³Egiturarekin eta eskumenekin lotutako hainbat aldaketa direla-eta, aipatutako zerbitzu/neurri horiei buruzko datuak hainbat iturritatik lortu dira azken urteotan, Eusko Jaurlaritzaren esumen-banaketaren arabera.

Hori dela-eta, “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Gizarte babesaren eremua, poliziaren eta justiziaren arloak, 2013” txostenak 129 iturritatik datorren informazioa biltzen du, 16 esku-hartze alorren inguruan; jarraian xehatzen dira 16 alor horiek. Egiturari dagokionez, txostenak hiru kapitulu ditu:

► GIZARTE-BABESAREN ARLOA

Atal honetan aurkezten diren analisiak eta datu-taulek hainbat gairi buruzko informazioa biltzen dute: harrera-baliabideak (larrialdi-zerbitzua, egonaldi ertain eta luzerako arreta- zentroak eta -pisuak, eta lehenengo aldiz, gizarteratzeko eta laneratzeko pisuak), Aholkularitza Juridikoa, Arreta Psikologikoa, Familiako Esku Hartze Espezializatua, Familia Elkarguneko Zerbitzuak, Telefono bidezko Arreta, Etxebizitza alorreko laguntzak, Laguntza Ekonomikoak, Enplegua, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakume atzerritarrei emandako aldi baterako bizileku-baimenak eta lan-baimenak.

Honako hauek izan dira informazioa biltzeko iturriak: lehenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Emakumeak Babesteko eta Familiari Laguntzeko Zerbitzua; bigarrenik, Harrera-zerbitzuak, Aholkularitza Juridikoa, Arreta Psikologikoa eta/edo Familia-elkarguneko (FE) dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak eta mankomunitateak; hirugarrenik, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila; eta azkenik, Espainiako Gobernuaren Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioako Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza.

2014an, atal horretan hiru datu-dokumentu berri landu ziren (PDF eta XLS formatuetan), eta baita horien deskribapen-analisirako kapituluak ere, honako hauei buruz:

- **Enplegua:** genero-indarkeriaren biktima diren eta Lanbiden enplegu-eskatzailer gisa erregistratuta dauden emakumei buruz, hainbat aldagairen arabera.
- **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta:** genero-indarkeriaren biktima diren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten emakumei buruz.
- **Aldi baterako egoitza-baimena eta lan-baimena:** genero-indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrei emandako aldi baterako bizileku-baimenei eta lan-baimenei buruz.

► ARLO POLIZIALA

Bigarren atalean biltzen diren azterketak eta datu-taulek honako alderdi honi buruzko informazioa jasotzen dute: Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriak biktima bihurtutako zenbat emakume erregistratu dituen Ertzaintzak.

Informazio-bilketaren iturria Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila da, Azterlan eta Analisisien Dibisioaren bitartez.

► ARLO JUDIZIALA

Honako hauei buruzko informazioa biltzen da hirugarren ataleko azterketetan eta datu-tauletan: emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prozesu judizialak, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), abokatu-laguntzako ofiziozko txanda espezifikoa eta auzitegi-medikuen arreta.

Honako iturri hauek dira dugu informazioa biltzeko: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (dokumentazio-iturria); Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saila, BLZren bidez; Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua; eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea (dokumentazio-iturria)

Txostena bi bertsiotan argitaratzen da, eta Behatokiaren webgunean eskura daiteke:

- Dokumentu osoa; honako elementu hauen zerrenda jasotzen du:
 - Azterketa-dokumentua(k)
 - Sintesia
 - Terminoen glosarioa
 - Datu-iturriak
 - Datu-taulen eranskina
 - Dokumentu-eranskina (emakumeen aurkako indarkeriari buruzko proposamen terminologikoa, erakundeen arteko akordioaren Jarraipen Batzordeak adostua)
- Azterketa-dokumentuak eta datu-taulak jasotzen dituzten dokumentuak (PDF eta XLS), gaika antolatuta:
 - Azterketa deskribatzailea jasotzen duten 3 dokumentu (gizarte-, polizia- eta justizia-arloak)
 - Datu-taulak (XLS) jasotzen dituzten 13 liburu
 - Datu-taulak (PDF) jasotzen dituzten 13 dokumentu
 - PDF mapak (esparru poliziala)

Adierazi beharra dago bilakaera-tauletan dagoen serie kronologikoaren zabaltasuna dela-eta, edizio honetan aldaketak egin behar izan direla hainbat taulatan, bai edukiari dagokionez, eta baita testuari dagokionez ere, eskainitako informazioaren irakurerraztasuna ziurtatzearen.


Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

“Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Gizarte babesaren eremua, poliziaren eta justiziaren arloak, 2013”

Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta- baliabideen eta programa espezifikoaren katalogoa: Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan (BLH)

Urtero bezala, etxean indarkeriaren biktima eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak katalogatzen dituen dokumentu bat argitaratu zuen Behatokiak 2014an.

Dokumentu hori lantzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta berezko baliabideak dituzten toki-erakundeek zerbitzuen lurralde-sareari buruzko informazio eguneratua eskaintzen dute.



Behatokiaren webgunean kokatuta dago katalogo hori, gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak ditu, eta sei ataletan banatuta dago:

- Harrera-baliabideak
- Aholkularitza juridikoko baliabideak
- Laguntza psikologikoko baliabideak
- Familietan esku-hartze espezializatua gauzatzeko baliabideak
- Familia-elkarguneak
- Laguntza sozialeko agenteen sarea

Atal bakoitzaren aurretik agertzen da baliabideen lurralde-estaldura irudikatzen duen gaikako mapa, eta hainbat aukera grafikoren bitartez irudikatuta dago, titulartasuna duen erakundearen arabera (Bizkaiko Foru Aldundia, edota Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalak edo Mankomunitateak).

Aholkularitza juridikoari eta **Arreta psikologikoari** buruzko kapituluek honako alderdi hauei buruzko informazioa jasotzen dute:

- Zer erakunde den baliabidearen titular (harremanetan jartzeko datuak)
- Programaren izena
- Baliabidearen helburu orokorrak eta garatuko den esku hartzeko programa
- Zer kolektiborentzat den
- Kudeaketa-mota
- Arreta-orduak hilean
- Zenbat langilek ematen duten zerbitzua
- Beste datu interesgarri batzuk (adibidez, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko telefonoa
- Arreta-egunak eta ordutegia
- 2013ko erabiltzaile kopurua, sexuaren arabera banandua, eta emakumeen proportzioa erabiltzaileen guztizkoan
- Indarkeria-arazoa izanik 2013an arreta jaso duten emakumeen kopurua (tratu txarra eta sexu-indarkeria), kasu berriak eta aurrekoak adierazita

Harrera-baliabideei dagokienez emandako informazioa honako gai hauei buruzkoa da:

- Zenbat baliabide dauden
 - Pisu-kopurua
 - Plaza-kopurua
- Pisu-mota
 - Aldi baterako harrera
 - Larrialdi-harrera
- Zerbitzuaren kudeaketa-mota
- Babesteko/laguntzeko programa
- Pisuari atxikitako langileak
- Beste datu interesgarri batzuk (adibidez, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Zenbat pertsonari egin zitzaion harrera 2013. urtean, honako kolektibo hauek bereizita:
 - Emakumeak
 - Emakume horien seme-alabak, sexuaren eta adinaren arabera (</> 18 urte)
 - Emakume horien mendeko pertsona helduak

Familiako Esku-Hartze Zerbitzu Espezializatuari dagokionez, dokumentuak honako hauei buruzko informazioa ematen digu:

- Baliabidearen titularra zer erakunde den (harremanetarako datuak)
- Programaren izena
- Helburu orokorrak
- Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena
- Zer kolektiborentzat den
- Kudeaketa-mota
- Hilean arreta emandako kasuen kopurua
- Zenbat langilek ematen duten zerbitzua
- Beste datu interesgarri batzuk (adibidez, zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Zerbitzura sartzeko modua
- 2013an zerbitzua erabili zuten pertsonen kopurua, emakumeen eta adingabeen kopurua (sexuaren arabera erakutsia), eta kasu berriei buruzko informazioa bera
- Kasu berrien familia-konfigurazioari buruzko informazioa: kargura seme-alabak dituzten emakumeen eta halakorik ez dutenen kopurua

Deribazio judizial bidezko Familia Elkarguneko (FE) Zerbitzuei buruzko fitxek honako galdera-bateria hau jasotzen dute:

- Baliabidearen titularra zer erakunde den (harremanetarako datuak)
- Programaren izena
- Helburu orokorrak
- Emandako zerbitzuak
- Zer kolektiborentzat den
- Zuzeneko arretarako eguna eta ordutegia
- Kudeaketa mota
- Zerbitzua ematen duten profesionalen kopurua
- Programan sartzea
- Beste datu interesgarri batzuk
- Araudi erregulatzaileria
- Eskumena
- Kasuen guztizko kopurua 2013an, familia kopuruaren eta sexu bakoitzeko adingabeen kopuruaren arabera banandua

- Babes-ordena duten kasuen kopurua 2013an, emakumeen eta sexu bakoitzeko adingabeen kopuruaren arabera banandua (baita adingabeen guztizko kopuruan duen proportzioaren arabera ere)

Gizarte-laguntzarako Agenteen Sareari dagokionez (kapitulu hori 2013an txertatu zen urteko argitalpenean), honako hauei buruzko informazioa biltzen du:

- Programaren izena
- Helburu orokorrak
- Garatuko den esku hartzeko programaren deskribapena
- Zer kolektiborentzat den
- Kudeaketa-mota
- Inplikaturako elkarten kopurua
- Sarean dauden gizarte-agenteen kopurua
- Programan sartzea
- Beste datu interesgarri batzuk (ekimenaren bilakaera)

Dokumentuak honako txosten hau du erantsita: “Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak”, Etxeko tratu txarrak eta Sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei arreta hobea emateko erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak onetsia.


Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

“Etxean indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak: harrera, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku hartzeko programa espezializatuak, familia-elkarguneak eta laguntza sozialeko agenteen sarea (2014)”

Udalerrietako Informazio orria

“Udalerrietako Informazio Orria” txosten-modalitatea sei hilean behingo datu-bilketaren esparruan egiten du Behatokiak, emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean berezko arreta-baliabideak dituzten tokiko erakundeekin batera (udalerrriak eta mankomunitateak), eta toki-esparruan horri buruzko datuen bilketa sistematizatzeko mekanismoak bultzatzeko jomugarekin antolatuta dago.

2014an, partaidetza-maila handia egon zen (berezko arretazerbitzuak dituzten toki-erakundeek % 96,7), ezarritako erantzun-epe gehienak bete ziren, eta emandako informazioaren kalitatea handia izan zen; horrek guztiak agerian uzten du txosten horiekin amaitzen den sei hilean behingo datu-bilketako prozesua finkatuta dagoela eta irismen handia duela.



Bestalde, esparru judizialari buruzko atalean, Etxeko Indarkeriaren eta/edo Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak eta Ofiziozko Txandak epaitegi-barrutien arabera egindako esku-hartzeei buruzko datuak jaso dira lehen aldiz; Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua da datu horien iturria.

Aipaturiko hobekuntzak kontuan hartuta, Udalerrietako Informazio Orriak ondoren deskribatutako egitura zuen 2014an, taulen, koadroen eta grafikoen zerrenda baten bitartez:

- ▶ Testuinguruari buruzko datuak
- ▶ Udalerriari edo mankomunitateari buruzko datuak
 - Esparru soziala
 - > *Udalerrien baliabideak*
 - Harrera
 - Aholkularitza juridikoa
 - Laguntza psikologikoa
 - Familia-elkargunea
 - > *Foru Aldundiaren baliabideak*
 - Larrialdi-harrera
 - Epe ertaineko edo luzeko egonaldiako harrera
 - Aholkularitza juridikoa
 - Laguntza psikologikoa
 - Familiako esku-hartze espezializatua
 - Familia-elkargunea
 - Esparru poliziala
 - Esparru judiziala
 - Babes-aginduak
 - Salaketak eta uko egiteak
 - Etxeko Indarkeriaren eta/edo Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak eta Ofiziozko Txandak egindako esku-hartzeak

Azaroaren 25ean, hau da, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunean, hausnarketak eta jarduerak egiten lagunduko lukeen informazioa toki-erakundeen eskura uzteko jomugarekin, Behatokiak honako konpromiso hau hartu du, hirugarrenengo urtez jarraian: egun hori baino lehen, txosten horiek erakundeetara bidaltzea, betiere udalerri eta mankomunitateek finkaturiko epearen barruan jakinarazten badituzte beren datuak.

On-line dokumentu-kudeatzailea

On-line dokumentu-kudeatzaileari dagokionez, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko dokumentuak biltzen dituen datu-base bibliografikoa da, dokumentu horiek gaikako lau tipologiaren arabera banatuta egonik:

- ▶ Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako eta mankomunitateetako berdintasun-planak
- ▶ Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako eta mankomunitateetako emakumeenganako indarkeriaren aurkako programak
- ▶ Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei arreta hobia emateko tokiko koordinazio-protokoloak
- ▶ Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko legedia, nazioartean, Europan, estatuan, EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan, eta Bizkaian:
 - Legeak
 - Dekretuak
 - Aginduak
 - Erabakiak
 - Zuzentarauak
 - Txostenak
 - Araudiak
 - Itunak

ISBD (International Standard Bibliographic Description) arauen egokitzapen batean oinarrituta deskribatzen dira dokumentuak. Arau horien arabera aztertzen dira dokumentu bakoitzaren ezaugarri formalak eta kanpo-ezaugarriak; dokumentuen deskribapenean sarbide modura zehaztu diren arloei erreparatu zaie arretaz, sarbide horietatik ateratzen baita dokumentuen funtsean dauden erregistroak katalogatzeko eta antolatzeko behar den informazio objektiboa.

 Dokumentu-kudeatzailea

... Bilaketaren emaitzak

>> Bilaketa aurreratua <<

Izenburua: Urduriako Udalaren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Ordenantza (BAO, 183. zk. 2012/09/ 21) = Ordenanza municipal para la igualdad de mujeres y hombres del Ayuntamiento de Orduña (BOB, n.º 183, 21/09/2012)

Egilea: BIZKAIA. DIPUTACIÓN FORAL

Hizkuntza: Euskera, español

Data: 2012

Emaitzak: 1 Orrialde 1 . Guztira 1

Informazio-unitateak honako arlo hauetan mailakatzen dira:

- ▶ Egilea
- ▶ Izenburua
- ▶ Dokumentu-mota
- ▶ Beste erantzukizun-aipamen batzuk
- ▶ Edizioa
- ▶ Hizkuntza
- ▶ Edizioa
- ▶ Argitaletxea
- ▶ Argitaratutako urtean
- ▶ Maiztasuna (aldizkako argitalpenak badira)
- ▶ Seriea
- ▶ Oharrak
- ▶ Zenbaki normalizatuak edo sinboloak:
 - ISBN
 - ISSN (aldizkako argitalpenak badira)
 - NIPO
 - DL
 - Sinboloa
- ▶ Laburpena
- ▶ Deskribatzaileak

Sistemari esker, bi aukeraren bitartez egin daitezke bilaketak:

Bilatzaile arrunta

Testu-kutxa batean termino bat edo gehiago txertatuz gero, eskatutako dokumentuaren edo dokumentuen erreferentzia itzultzen du bilatzaileak.

Bilatzaile aurreratua

Bilaketa xehatuagoa eta zehatzagoa izatea nahi badugu, termino bat baino gehiago sartu beharko dugu bilatzaile aurreratuko testu-kutxetan. Bilaketa-modalitate horren bitartez, tresna informatiko horrek dokumentuaren fitxa katalogafikoa ematen digu, eta horrez gain, dokumentuaren bertsio digitala bistara eta/edo deskarga dezakegu.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

[Dokumentu-kudeatzailea](#)

Boletín OVGB/BGIB informazio-boletina

2014an *Boletín OVGB/BGIB Buletinaren* 32., 33., 34., eta 35. zenbakiak landu dira, martxoan, ekainean, irailean eta abenduan, hurrenez hurren.

Tresna horren bitartez, emakumeen aurkako indarkeria eraztearen aldeko mekanismo, egitura eta prozeduren inguruko sentsibilizazioa, informazioa eta sustapena bultzatu nahi du Behatokiak, argitalpenaren **helburuekin** bat etorrira:

- ▶ Behatokiak lurralde-esparruko informazioa biltzeko eta aztertzeko organo gisa duen rola sendotzea.
- ▶ Udalerriekiko eta mankomunitateekiko harremana finkatzea, baita erreferentziatzeko beste erakunde batzuekiko ere.
- ▶ Hainbat arlotako profesionalekin eta erakundeekin emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutzak trukatzeko prozesuaren alde egitea: gauzatutako jarduerak, ikasitako alderdiak, ikuspegi berriak.
- ▶ Behatokiaren jardunen eta horien emaitzen hedapenaren inguruan etengabeko komunikaziorako gune bat sortzea eta mantentzea.
- ▶ Beste erakunde eta organo batzuen jardueren, proiektuen eta programen berri ematea, genero-indarkeriaren arloan egiten diren ekintzak ezagutzera emateko.
- ▶ Emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoak ikusgai jartzea eta haren gainean sentsibilizatzea.

Argitalpenaren edukira sartu nahi izanez gero, organoaren webgunean sar daiteke erabiltzailea, edo bestela, Buletinaren banaketa-zerrendetan harpidetzeko eskatuta. Zerrenda horietan, honako hauen posta elektronikoko helbideak daude erregistratuta:

- ▶ Bizkaiko toki-erakundeen Gizarte Ongizateko eta Berdintasuneko arloetako politikariak eta teknikariak.
- ▶ Behatokiko Osoko Bilkurako kideak.
- ▶ Behatokiko adierazleen lantaldeko kideak.



- ▶ Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintza Batzordeko kideak (VII. agintalditik aurrerakoak).
- ▶ Bizkaiko Lurralde Historikoko emakume-elkarteak.
- ▶ Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko lan egiten duten elkarteak.
- ▶ Behatokiaren solaskide diren langileak eta erakundeak.
- ▶ Genero-indarkeriaren azterketarekin eta ikerketarekin lotura duten pertsonak, eta argitalpena interesatzen zaienak.
- ▶ Herritarrak eta erakundeak oro har.

Halaber, hedaketa handiagoa lortzeko laguntza-neurri gisa, zenbaki berri bakoitza argitaratuko dela jakinarazten zaie, posta elektronikoko bidez, pertsona eta kolektibo harpidedunei. Jakinarazpen horretan, buletinerako eta artikuluko guztietarako estekak daude; horrela, zuzenean mezu elektronikotik argitalpeneko atal bakoitzean sartzea errazten zaio harpidedunari.

2013an gauzatutako egitura- eta eduki-berrikuntzaren ondoren, Buletina bost ataletan egituratuta geratu da:

- ▶ “Gaiak”
- ▶ “Behatokia”
- ▶ “Tresnak”
- ▶ “Sarean”
- ▶ “Kontuan hartu”

Era berean, aldizkariaren azalean kokatutako atal berri bat sortu zen, “Ikuspegiak” izenekoa; berdintasunari eta emakumeenganako indarkeriari buruzko Bizkaiko Lurralde Historikoko eta EAEko honako argitalpen digital hauetarako estekak jasotzen ditu atal horrek: *Berdintasuna*, *Emakunde*, *Beldur Barik*, *Nahita*, *Emeki*, *Pikara online Magazine*.

Boletín OVGB/BGIB Buletinaren edukiari gagozkiola, nabarmentzekoa da Adierazleen Lan Taldeko kideek zenbaki bakoitzeko edukia zehazteko lanean parte hartzen dutela, eta epe jakin baten barruan helaraz ditzakete dituzten proposamenak. Era berean, argitalpenean hel daitezkeen gaiak proposa ditzakete irakurleek, orri-oinean gaitutako sarbide baten bitartez.

Eduki zehatzari dagokionez, ondoren adierazitako gaiak eta adituen kolaborazioak argitaratu dira 2014an:

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana “Gaiak” atalaren protagonista izan zen 2014ko lehen zenbakian; gainera, “Tresnak” atalean, Burgosko Udalak indarkeria psikologikoaren inguruan abiarazitako sentsibilizazio-kanpaina jaso zen. Buletinaren 32. zenbakian, halaber, “Behatokia” atala Udalerrietako Informazio Orriari buruzko informazioa emateko erreserbatu zen (2013ko lehen seihilekoa), eta Lea Ibarako Mankomunitateko gizarte-laguntzaile Izaskun Ibarrek bere iritzia eman zuen “Sarean” atalean.

Ekaineko zenbakiak, 33.ak, Eudel Euskadiko Udalen Elkartek argitaratutako “Emakumeen aurkako indarkeria ematen denerako jendaurreko jarduerarako gomendioak” dokumentuari buruzko informazioa jasotzen da “Gaiak” atalean; horren jarraian, “Behatokia” atalean, “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan ... (2013)” txostena jasotzen da; “Tresnak” atalean, Unión de Asociaciones Familiares (UNAF) elkarteko zuzendari Julia Pérez Correa-ri egindako elkarrizketa bat biltzen da; azkenik, “Sarean” atalean, Lea-Artibai Mankomunitateko berdintasun-teknikariaren eta gizarte-zerbitzuetako taldearen baterako ikuspegia agertzen da.

2014ko iraileko aldizkarian, 34. zenbakian, Asociación Terapia y Género elkarteko lehendakari Carmina Serrano Hernández psikologoari elkarrizketa egiten zaio “Gaiak” atalean, berdintasun-esparruko psikologo gisa egindako lanari buruz; “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak. 2003” argitalpena laburtzen da; “Tresnak” atalean, Garapen Azterlanetako doktore eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaile Irantzu Mendia Azkuek emakumeen aurkako indarkeria gerra-arma gisa erabiltzeari buruz hitz egiten du; eta azkenik, Udal Harremanetarako Sareari buruzko atalean, Elorrioko udaleko berdintasun-teknikari Maitane Iribarrek hitz egiten du, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko gaitutako zerbitzuen eta benetako esperientzien egoerari buruz duen iritzia ematen digu.

Urteko azkeneko zenbakiak, 35.ak, “Gaiak” atalean, Itzulpengintzako eta Interpretazioko doktore Maribel del Pozo Triviño-ri egindako elkarrizketa irakur dezakegu; Vigoko Unibertsitatetik, Europako *Speak Out for Support* proiektua koordinatzen du Maribel del Pozo Triviño-k; genero-indarkeriaren esparruan diharduten interpreteentzako prestakuntza espezializatuari buruzkoa da aipatutako proiektua; “Behatokia” atala, bestalde, BGIBk landutako “Prebentzio- eta arreta-arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien III. Eskuliburu”ren argitalpenerako erreserbatzen da; “Tresnak” atalean, “El Viaje en Globo” proiektu ludiko terapeutikoa nabarmentzen da; Instituto Andaluz de la Mujer erakundearen proiektu hori genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-baliabideetako adingabeei zuzenduta dago; gainera, Silvia Oñate Moya IAMeko zuzendariari egindako elkarrizketa bat ere jasotzen da atal horretan; azkenik, “Sarean” atala Beldur Barik! Argitalpenerako erreserbatzen da. 2014an “Beldur Barik jarrera” indartzen ari dela nabarmentzen da.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

[BGIBren buletinaren 32. zenbakia](#)

[BGIBren buletinaren 33. zenbakia](#)

[BGIBren buletinaren 34. zenbakia](#)

[BGIBren buletinaren 35. zenbakia](#)

Genero- Indarkeriaren aurkako jardunen, ekimen eta esperietzien III. eskuliburua

Behatokiaren eginkizunetako bat hezurmamitzeko (Partehartzeari, beste erakundeekiko harremanari eusteari eta bestelako Administrazioek dituzten jardunbide egokiak ezagutzeari buruzkoa), Behatokiak “Prebentzio- eta arreta-arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua”ren hirugarren edizioa landu zuen 2014an. 2014ko edizio hori hirugarrena dugu, 2006koaren eta 2010ekoaren ondoren.

Bizkaiko Genero
Indarkeriaren Behatokia

GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO JARDUNEN, EKIMENEN ETA ESPERIENTZIEN III. ESKU LABURUA

Eskuliburua egiteko, “Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenen II. txostena” hartu zen erreferentzia gisa; 2013an landu zen txosten hori, eta Adierazleen Lan taldeak horren haritik identifikatutako eta Behatokiaren Plenoak berretsitako alderdiak irudikatzen ditu. Eskuliburua modu paraleloan egituratuta dago, eta genero-indarkeriaren **inguruko ezagupenari eta arretari buruzko 33 jardunbide eta esperi** txosten horretan hobetu beharreko arlo gisa bilduta badaude.



Kontatutako esperientziak estatuan, European eta nazioartean gertatu dira, eta gehienak erakunde-eremuan jarri dira praktikan, hirugarren sektoreko erakundeetatik sustatutako beste hainbatekin batera.

Ondoren, gai bakoitzean bildutako jardunbide eta esperientzien edukia eta ezaugarri nagusiak laburtu dira; hainbat esparru eta dimentsiotan egituratuta agertzen dira:

► **Prebentzia:**

- **Zeharkakotasuna:** berdintasunari buruzko udal-ordenantzak lantzearekin eta hiri debekatuaren mapak egitearekin loturiko ekimenak jasotzen ditu; hirigintzako mainstreamingerako abiapuntua da hori.
- **Ahalduntzea:** hautatutako jardunbideen artean balio erantsi gisa nabarmentzen dira erakundeen arteko lankidetzak, sareko lana eta sinergien sorkuntza, helburuak lortzeko laguntza estrategikoak baitira.

- **Baterako hezkuntza:** baterako hezkuntzaren alorrean, gazteen artean genero-indarkeria prebenitzearen garrantzia nabarmentzen da, hainbat jardunbiderekin, hala nola baterako hezkuntza ez-formalerako nazioarteko ekimen bat; M-Learning metodologiarekin ikasteko baliabide bat (gailu mugikorren erabileraren bitartez), berdintasun-balioak bultzatzeko helburua duena; eta gazteekin komunikabide informalak erabiltzeko esperientzia, ziberrindarkeriaren arazoari heltzeko jomuga izaki.
- **Komunikazioa:** komunikazioaren esparruan, adin guztietako gizonek indarkeria matxistaren aurkako borrokan duten eginkizuna azpimarratu da.

► Errealitatearen ezagupena:

- **Datuen erregistroa:** Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren udal-harremanetarako sarearen esperientzia aurkezten da, zerbitzu publikoetatik datozen datuen bilketari buruzko esperientzia, hain zuzen; informatzaile-sare finkatua eta partizipatiboa du udal-harremanetarako sareak.
- **Ikerketa:** gai horren barnean, genero-indarkeriari erantsitako ahuleziak pairatzen dituzten kolektiboekin loturiko jardunbideak hautatu dira; emakume ijitoak, adineko emakumeak eta landa-eremuko emakumeak dira kolektibo horietako batzuk. Horrez gain, Daphne programan kokatutako Protect proiektua (I eta II) ere txertatu da; Daphne programari dagokionez, honako hauei buruzkoa da: batetik, biktimak identifikatzea eta babestea; bigarrenik, arrisku-ebaluaziorako gaitasunak areagotzea; eta azkenik, arrisku handiko biktimak babesteko segurtasuna kudeatzea..

► Arreta:

- **Zerbitzuak:** indarkeriaren biktima diren emakumeak detektatzeko eta haiekin esku hartzeko bi esperientzia biltzen dira, horietako bat Bizkaiko emakume-elkarteen sareak sostengatua, eta bestea, unibertsitate-esparruko boluntario-sare batean. Atal horretan aurkeztutako gainerako esperientziak genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei arreta eta zaintza ematearekin lotuta daude, betiere hainbat errealitatetatik helduta: harrera-baliabideetara amekin jotzen duten adingabeak; genero-indarkeriaren eraginpeko adingabeei arreta emateko programa espezifikoak; genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei amatasunean laguntzeko programa; eta azkenik, bikotekideen indarkeria pairatzen duten emakume adingabeei arretaemateko programa.
- **Profesionalen prestakuntza:** kapitulu honetan hiru esperientzia jasotzen dira. Lehenik, sektore-esparruko prestakuntza-praktikaldi bat (osasun-esparrukoa); bigarrenik, genero-indarkeriaren esparruan diharduten interpreteentzako prestakuntza espezializatuko praktikaldi bat; eta azkenik, landa-eremuan diharduten profesionalentzako prestakuntza-ekimen bat.

- **Koordinazioa:** hiru protokolo-esperientzia biltzen dira atal honetan. Lehen, bikotekideak egindako indarkeriaren arriskua balioesteko protokolo bat; bigarrena, desgaitasunak dituzten emakumeen artean genero-indarkeria detektatzeko beste protokolo bat; eta azkenik, Arabako Foru Aldundiaren Adingabeen eta Familiaren Arloaren eskumen-esparruaren barneko jardun-protokolo bat, genero-indarkeriarekin lotutako arazoetarako.

Gainera, hainbat esparrutan erabil daitezkeen tresna gisa balio duten ekimenen hautaketa bat ere jasotzen du eskuliburuak, eta gaur egun funtzionatzen ari diren genero-indarkeriaren behatokiaren erreferentzia jasotzen duen eranskin batekin amaitzen da.

Eranskinak ikusi nahi izanez gero:

[Genero-Indarkeriaren aurkako jarduen, ekimen eta esperientzien III. eskuliburu. 2014.](#)

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA
JARDUERA-MEMORIA 2014